

# **-FANZINE KONFITATUA- -GARRANBLADA KONFITADA-**

**Garrobik bere FANZINE + GARRANBLADA KONFITATUA-n  
parte hartzeko deialdia ireki du**

Garrobi-k, artista getxotarren harrobiak, bere Hiruki arrakastatsuak aurtengo urte pandemikoarekin bateragarria den formatu batera egokitu ditu. GARRANBLADA KONFITATUA-k zuzeneko irrati show hibridoa aurkezten du, artistei elkarrizketak eta formatu anitzeko interbentzio performatiboak bateratuko dituena. Ekitaldia urtarrilaren 9an izango da Romo Kultur Etxean eta artea elkarrekin partekatzeko gogoz, mota ezberdinen sortzaileen parte-hartzea bilatzen hari dira deialdi honen bidez. Jarraibidea erraza da, berrogeialdiaren garaian sortutako testu batzuetatik abiatuta, buru sortzaileek esku har dezakete horiek berrasmatzeko; dela ekarpen grafiko batekin, bere garaiko lekuko den **La Fanzine** baten parte izango dena; dela Garranblada Konfitatua-n zuzenean egiteko proposamen batekin.

- **Garrobik** deialdia irekitzen du, kultur proiektu gisa duen izaeran dagoelako ideia sortzaileak atzeraelikatzea, eta ideia horiek 2021aren hasieran egingo den galan hainbat modutan bateratu nahi dituelako. Parte hartzeko modua erraza da: Artisten harrobiak eskaintzen duen testuetako bat gure sorkuntzako pieza batekin lotzea da helburua, formatu grafikoan edota zuzeneko ekitaldian.
- GARRANBLADA KONFITATUA diziplina anitzeko ikuskizun artistiko baten itxura dauka, zuzeneko irrati show baten hariarekin zuzeneko musika eta marrazketa, hitz errezitatuak, performance-a eta bestelako errepresentazio artistikoak ikusteko aukera eskaintzen duena. Urtarrilaren 9an izango da arratsaldeko 19-etatik aurrera, RKE-ko auditorio nagusian doako sarrerekin. **La Fanzine**-aren dokumentu grafikoa, audio formatuzkoko podcast-a eta bertan gertatzen den guztiaren berri emango duen bideoa, gala honen lekuko izango dira.
- **Garrobi**-ko webgunean eta sare sozialetan daude Garranblada Konfitatua-ren parte izateko jarraibideak. Epea abenduaren 15 astearterarte (barne) egongo da zabalik. **La Fanzine**-an agertzeko aukeratzen diren proposamenek 50€ jasoko dituzte, eta GARRANBLADAN zuzenean parte hartzen dutenek 150€ jasoko dituzte haien ekarpen sortzaileagatik. (Faktura aurkeztu beharko da.)

(A)normaltasun berri-berriaren eta formatu hibridoen garaian, pertsona guztiak eraldatu dituen konfinamendu luze bat bizi ondoren (oraindik ez dakigu zertan), Garrobik deialdia ireki eta bere hurrengo Garrablada Konfitatuan (baina konfinatu gabea) parte hartzera gonbidatzen zaitu, 2021eko urtarrilaren 9an larunbata, 19-etatik aurrera, Romo Kultur Etxeko areto nagusian.

Getxoko artisten harrobiaren ildo parte-hartzaile eta irekiari jarraituz, deialdi honek berriz elkartzera gonbidatzen gaitu, zer egiten dugun erakusteko, nola gauden eta nola sentitzen garen elkarri kontatzeko. Garrablada Konfitatuari esker, hori guztia arte bihurtzeko eta esperientzia katartikoa bizitzeko helburuarekin. 2020 biriko hau agurtzeko eta urte berriari artearen lubakietatik agurtzeko modurik onena.

Hiruki topaketa artistikoa ezin denez egin, Garrobi familiaren hasierako plana, oraindik bizi dugun testuinguru pandemikora egokitu dira. Garrablada Konfitatua izena duen zuzeneko gala sortuz, kultur ekitaldiak bereizten dituzten beharrezko segurtasun-neurri guztiekin; eta aldi berean La Fanzine-a argitaratuz. Bi formatuek lehen konfinamendua daukate ardatz, eta biak irekita daude, buru urduri eta sortzaileen parte-hartzearen zain.

Deialdia abenduaren 15 astearterarte (barne) dago zabalik, eta proposamenak [info@garrobi.com](mailto:info@garrobi.com) helbide elektronikora bidali behar dira.



**GARROBI**  
ARTE-KULTURA ELKARTEA